



GEHITU SARIAK - 2001

GEHITUk, Euskal Herriko gay eta lesbianen elkarteak ZILARREZKO GEHITU 2001 eta LATORRIZKO GEHITU 2001 sariak ematea adostu du.

ZILARREZKO GEHITU 2001 Saria, orientazio homosexuala daukaten euskal hiritarren oinarrizko eskubideak defendatzen gehien nabarmendu den pertsona edo erakundeari.

Kontuan izanik Gehituk, Hegoak taldearekin batera, Euskal Autonomi Elkarteke Udalei bidalitako mozioaren garrantzia eta arrakasta, zeinaren bidez bikote gay eta lesbianek ezkontzarentzat antolatuta dauden zeremoniak egiteko aukera izan dezatela eskatzen baitzitzaie, bai eta gizon eta emakumeen arteko bikoteekiko berdintasun mailan bikote gay eta lesbianek ezkontzeko eskubidea onartzearen aldeko aldarrikapena egitea ere, 2001eko ZILARREZKO GEHITU SARIA honako erakunde hauei ematea ebatzi da:

AIPATU EBAZPENA ONARTU DUTEN EUSKAL UDALEI, ZEINAREN BIDEZ BIKOTE GAY ETA LESBIANEI, IZATEZKO BIKOTEEN UDAL ERROLDAN IZENA EMATERAKOAN, BIKOTE HETEROSEXUALEKIKO BERDINTASUN MAILAN ZEREMONIA BAT EGITEKO ESKUBIDEA ONARTU BAITUTE, ETA, HALABER, ESTATUKO GOBERNUARI BIKOTE GAY ETA LESBIANEI EZKONTZEKO ESKUBIDEA ONAR DAKIELA ESKATU BAITIOTE

Sari honen bidez nabarmendu nahi dugu gaurregun euskal gizartean eta hori ordezkatzeko duten erakundeen artean gehiengo oso zabal batek bat egiten duela orientazio homosexuala dugun pertsonen berdintasun eta duintasun eskubidean oinarritzen diren gure erreibindikapenekin. Aldi berean salatu nahi dugu Euskadin eta Espainiar Estatuan emakume lesbianok eta gizon gayok jasaten dugun diskriminazio egoera lotsagarria.

Zilarrezko Gehitu Saria sinbolizatzen duen golardea ebazpena onartu zuen lehenengo Udaleko Alkateari emango zaio, komunikabideei jakinaraziko zaien ekitaldi batean.

LATORRIZKO GEHITU Saria, orientazio homosexuala daukaten pertsonen oinarrizko eskubideak oztopatzen edo zapaltzen gehien nabarmendu diren pertsona edo erakundeei.

Alderdi Popularrak gidatzen duen ESPAINIAKO GOBERNUARI eman zaio sari hori, antolamendu juridikoak bikote heterosexualei ezkontzaren bitartez ematen dizkien eskubideak gay eta lesbianek osatutako bikoteentzat ere onartzera bideratutako ekimen guztiak era sistematikoan atzera bota dituelako, eta era horretan, gaiaren aurrean tema eta egoskorkeria handiak erakutsi dituelako. Jarrera horrekin, Espainiako Gobernua Europako Parlamentuaren erabakiak urratzen ari da, baita Europako Kontseiluko Gomendioak eta Amsterdamgo Ituna ere, horietan, orientazio sexuala dela kausa pertsonak baztertzea debekatzen baita. Era berean, ez du betetzen Espainiako Konstituzioak, 9.2 artikuluan zehazten duena ("botere publikoei dagokie norbanakoen eta norbanakoek osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna errealak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzea; (eta) hori betetzeko egon daitezkeen eragozpenak edo zailtasunak baztertzea).

Donostian, 2002ko urtarrilaren 30ean

Íñigo Lamarca, Koro del Santo eta David Montero.
GEHITUko bozeramaleak